



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Basauriko Udaleko Iturgin Ofizial lanpostu bitan (2) karrerako funtzioak izendatzea.

Alkateak, 2023ko abenduaren 21eko 4523/2023 Alkatetza Dekretuaren bidez, honako hau ebatzi du:

Lehehengoa: Administrazio Bereziko Eskalako Karrerako Funtzionarioak izendatzea, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Ofizioetako Langileen Mota, Basauriko Udaleko C2 Taldea, Iturgintzako Ofizialaren bi (2) plazaren deialdian, Sarbide Libreko eta Txanda Orokorreko Sistemaren bidez, behin deialdian eskatzen diren baldintzak bete, sei hilabeteko praktikaldia amaitu eta GAI kalifikazioa lortu ondoren, honako hauei:

- Sergio Iturrizar Vegas, KOD143_ITURGIN OFIZIALA lanpostuari atxikita.
- Julen Mentxaka Tena, KOD0144_ITURGIN OFIZIALA lanpostuari atxikita.

Bigarrena: Interesatuak, karrerako funtzionario izateko, hilabeteko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Epe hori egutegiko beste hamabost egunez luzatu ahal izango da, izendatutako pertsonak hala eskatzen badu eta horretarako arrazoi justifikatua badago. Hala egiten ez badu, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, ondorioz gabe geratuko dira jarduketa guztiak, eta karrerako funtzionario izateko dagozkion eskubide guztiak galduko ditu.

Hirugarrena: Funtzionarioa esleitutako lanpostura atxikitzea behin betikoa izango da.

Laugarrena: Dekretu hau interesdunei, Langileen Batzordeari eta Nominen Teknikariari jakinaraztea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Basauriko Udalaren web gunean argitaratzea.

Bosgarrena: Karrerako funtzionario izendapenetatik eratorritako gastua dagoeneko kontabilizatuta dago praktiketako funtzionarioentzako kontabilitate-loturan.

Basaurin, 2023ko abenduaren 22an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren